

Hitzordu

Marraz(i)oak



Elena Odriozola

Galtzagorri Elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean antolatzen duten Marraz(i)oak topaketen 3. edizioa egin zen, Artelekun, abenduaren 26tik 30era, «Gazteentzako Mikroipuin Animatuak Sortzen» lelopean.

Gutzira, 7 ilustratzailek hartu zuten parte. Irakasle lanetan, Oier Guillan idazlea, Jose Belmonte irudigile eta animazio egilea, eta Isabel Herguera animazio egilea aritu ziren, eta esperimentu oso bat egitea proposatu zieten parte hartzaileei. Oro har, gidoigintza eta animazio teknikak landu zituzten topaketek iraun zuten bost egunean.

Artelekun egin edo ez zalantza izan zen azken unera arte. Izan ere, azken uholdeek kalte handiak eragin zituzten bertan eta uste baitzen ezinezko izango zela azken bi edizioetan bezala topaketak bertan gauzatzea.

Azkenean, Marraz(i)oak topaketen hirugarren edizio honetan uholdeek eragindako kalteei erabilera ematea erabaki zen, eta suntsitutako materialean oinarritutako narrazio bat sortzea izan zen astebetetz Artelekun bildu ziren ilustratzaileek egin behar izan zuten lana.

Gazteentzako mikroipuin animatuak sortzea izan zen Marraz(i)oak III-ren helburua, eta Jules Vernerren NAUTILUS itsaspekoa izan zuten inspirazio iturri eta abiapuntu: ur azpiko soinuak, animalia bitxiak, ilunta-

sun, argia... Oier Guillanen testu ezku batetik hasita ipuina sortu zuten, nola hasi bai, baina nola bukatuko zen jakin gabe.


Isabel Herguerak eta Jose Belmontek erakutsi zieten animazioaren bitartez istorioak nola erai-ki. Artelekuko kableen artean, hezetasuna eta hotza sentituz, azken uholdeetan urak utzitako arrastoari jarraituz sortu zuten *NAUFRAGOTILUS NAUTILUSFRAGO* izeneko sormen lana.

Bestalde, Galtzagorri Elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean antolatzen duten Marraz(i)ok ilustratzaileen topaketek dagoeneko badute beren lekua sarean: <http://marrazioakgaltzagorri.blogspot.com/>.

Bertan aurki daitezke orain arteko hiru edizioetako bideoak, argazkiak eta informazio orokorra. Baita

irakasle lanetan ibili diren irudigile eta idazleen, nahiz parte hartu dutenen inguruko informazioa ere. 2011n sortutako *Naufrogotilus Nautilusfrago* izeneko mikroipuina ere laster izango da bertan ikusgai.

Marraz(i)ok topaketen lehen edizioa (2009) ilustratzaileei zuzendua izan zen. 2010ean, aldiz, idazle eta irudigileei zuzendu zitzairen, eta 2011n, beste behin ere, irudigileak izan dira parte hartu dutenak. Aurreko edizioetan paperezko euskarriaren gainean jardun zuten lanean, Harkaitz Cano eta Ignasi Blanchen gidaritzapean. Hirugarren edizio honetan, ordea, euskarri digitaletara bideratu da topaketetan egindako lana. Idazle bat (Oier Guillan), irudigile bat (Jose Belmonte) eta animazio egile bat (Isabel Herguera) izan dira irakasleak.



Elena Odriozola